

**EDUKIAK:**

1. **Platon**
2. **Aristoteles**
3. **Aquinoko Tomas**
4. **Descartes**
5. **Hume**
6. **Kant**
7. **Marx**
8. **Nietzsche**

**KALIFIKAZIOA:**

Ebaluaketa bakoitzean **azterketa** bakarra (hautaprobaren antzekoa) egingo dugu, eta hau kalifikazioaren oinarria izango da. Aginduko zaizkion **ariketak** egin eta entregatuz, ikasleak nota igotzeko aukera izango du, bai eta klaseko **parte hartzearekin** ere.

**Jarrera desegokiak** ere izan dezake eragina kalifikazioan; eta “oso txarra” izatera iritsiko balitz, ebaluaketa suspenditzeko moduan egon daiteke ikaslea.

Ikasturte osoa gainditzeko, hiru ebaluaketen batez besteko nota gainditu beharko da.

**BERRESKURAPEN PROZEDURAK****Ebaluaketa bakoitza**

Ikasleak azterketa bat gainditu beharko du. Ebaluaketa bakoitzaren behin betiko nota ebaluaketaren eta berreskurapenaren batez bestekoa izango da. Baina berreskurapena gainditu eta batez besteko hori 5era ailegatzen ez den kasuetan, ebaluaketaren nota osotara 5 izango da. Hirugarren ebaluaketa suspendituz gero, dagokion berreskurapena egiteko denborarik ez dagoenez, ikasleak aukeratu beharko du honen berreskurapen soila egin edo azterketa globala egitearen artean.

**Ikasturte osoa**

Ikasleak ikasturte osoko edukiari buruzko azterketa bat gainditu beharko du. Ikasturte osoaren behin betiko nota ikasturtearen eta berreskurapenaren batez bestekoa izango da. Baina berreskurapena gainditu eta batez besteko hori 5era ailegatzen ez den kasuetan, ikasturtearen nota osotara 5 izango da.